

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko irailaren 13a. IX. urtea. 2.399. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Pello Joxe Aranburu Idazlea

«Antonio Sorarrainek nire esku utzitako kultur ondare guztiarekin osatu dut lana»

Alkizan jaiotako fraidearen obra eta biografia bildu ditu herrikideak; Sorarrainen argitaratu gabeko lanak ere jaso ditu liburuan 07



Pello Joxe Aranburu esku artean Antonio Sorarrain Amunarriz buruz idatzi duen liburua duela. A. MAZ



Topic zentroan bildu ziren atzo, LAB sindikatuko hainbat ordezkari. I.U.

Bestelako eredu bat eraikitzeko mobilizatu behar dela uste du LABek

Sindikatu abertzaleak ordezkarien bilkura egin du Tolosan irailaren 26ko greba orokorraren lanketa zehazteko 02

Amasako Uxo Toki elkarteak bigarren aldiz antolatu du Txakolin Eguna

Larunbatean 17:00etan pilota partidak izango dira; lehenengo eskualdeko gazteak ariko dira eta Mikel Goñiren txanda izango da gero 04

Hamaika garagardo dastatu ahal izango dira igandera arte, Tolosan

Ukondoak euro bat garestiagoak izango dira, baina iazkoak baino handiagoak dira 02

Asier Mendizabal Eskultorea

«Berrizat jotzen diren praktikak ez dira hain berriak»

Abangoardia eta tradizioari buruzko hitzaldia emango du eskultore ordiziarrak, gaur, Tolosako Eskulturastea ekimenaren barruan 03

Akademia Pausokak

HIZKUNTZAK	ERREFORTZUA
- Ingelesa (Dirmeak, nekazaritza, lantergak, asterozetak, errefortzua...)	- Frantsesa - Matematika - Kimika - Gaztelania - Matematika - Ingelesko jarraperia - Tardes beltzak
- Alemana - Arabiera - Italiara	
- Itzulpenerak	
- Irakasleko kualifikatua	

Irailaren hainbat egunetan eta ondo erakutsia

Martin J. Iraila, 2. beheko 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

943.249.161 | 686.971.962



250 langile inguruk parte hartu zuten Topic zentroko batzarrean. Manifestazioa egin zuten gero. I. URKIZU

Gehiengo sozialaren beharra ikusten du LABek, «borondateak aldatzeko»

Irailaren 26ko greba orokorrari begirako biltzarra ospatu dute LABeko 250 ordezkari, Topic zentroan

Itzea Urkizu

Beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraikitzeko borondaterik ez dutenak, horretara behartu behar direla azaldu du LAB sindikatuak Tolosan, horretarako «herri honetan gehiengo sozial nahikoa» badela azpimarratuz.

Hala azaldu du sindikatu aberzaleko Industria Federazioko idazkaria den Garbiñe Aranburuk.

Tolosaldeko eta beste hainbat eskualdetako ordezkarien bilkura izan da, Topic zentroko aretoan. 250 lagunek hilaren 26ko greba orokorreko deialdia prestatzeaz gain, gaur egungo egoeraren balorazioa egin dute bertan. Jarraian, manifestazioa burutu dute, *Euskal Herriak hitza eta erabakia* lelopean.

Garbiñe Aranburuk, «kapitalismorik bortitzena inposatzen» ari direla nabarmendu du batza-

rra amaitu ostean, eta estatua berzentralizatzen ari direla salatu du: «Euskal Herritik urruntzen ari dira, beraz, erabakitze guneak».

Krisiaren testuinguruarekin jarraituz, «bankuei diru publikoa ematea» gaitzetsi egin du LABeko Industria Federazioko idazkariak, «erabaki politikoa» dela esanez. Bide honetan, langileak eta gizarte, oro har, pobrezia eta langabeziara bideratzen ari direla nabarmendu du Aranburuk, eta hau ere erabaki politikotzat du sindikatuko kideak: «Bankuei ematen zaien dirua da, bestelako

enplegu, industria eta gizarte politika batzuk egiteko falta den dirua».

«Negoziazioa zentralizatuz»

Azken hilabeteotako erreformak ere hizpide izan ditu sindikatuak, ordezkariekin egindako batzarrean, eta «osolarrizta» hartu dituzte, Garbiñe Aranburuk azaldu duenez: «Gure eskubideak defendatzeko ezinbestekoa dugu negoziazio kolektiboa, eta berau gure erabakitze-gunetik urruntzen ari dira».

Horrela beraz, negoziazioa «gero eta gehiago zentralizatuz,

eta Madrilgo negoziazioaren menpekoago eginez», ari direla gaitzetsi du. Ildo beretik, enpresariei nahiz erakundeek «adostutakoa ez betetzeko ahalmena» ematen zaiela uste du sindikatuak, negoziazio kolektiboari «bere izaera ukatuz».

Egoera honen aurrean, LAB sindikatuak argi azaldu nahi izan du, langabezia gora doala eta erreformen ondoren hazkunde ekonomikorik ez dela izan, Aranburuk azaldu duenez. Beraz, «egoera benetan kezagarria» dela diote: «Behin eta berriro sinestaz nahi digute hazkunde ekonomikorako lan harremanek desagertu egin behar dutela, eta sektore publikoa txikitu egin behar dela, baina guk, hori gezurra dela esan nahi dugu».

Bestelako alternatiba

Erreformen aurrean, honenbestez, bestelako alternatiba bat proposatu du LABek, Topic zentroko bilkuraren ondoren: «Bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat eraikitzea».

Eredu berri hau lortze bidean, ordea, borondaterik ez dutela ikusten nabarmendu dute: «Ez, behintzat, erakundeetan agintean dauden alderi gehienek aldeak ere».

Honenbestez, «borondate hauek nolabait aldatu eta beharrezko mobilizazio eta protesten indarra» beharrezkotzat jo dute sindikatu aberzaleko kideek, eta Garbiñe Aranburuk datorren irailaren 26ko greba orokorrean parte hartzeko deiarekin amaitu ditu adierazpenak: «Murrizketen aurkako jarrera azaldu behar da, eta gure lan harreman ereduaren berrantolaketa behar dugu, eragile sozial, sindikal eta politikokoek». **•tolosa@hitza.info**

Bandaren emanaldiarekin hasiko da garagardo festa

I.U.

Gaur irekiko dute, hamalagarrenez, Tolosako garagardo azoka, eta musika bandaren kontzer-

tuak emango dio hasiera Zerkausiko jaiari. Igandera bitarte, 26 garagardo dastatzeko aukera izango da Zerkausian, eta antolatzaileek nabarmendu dutenez, laz

baino hiru garagardo gehiago izango dira aukeran: «Garagardo alemaniarrak, belgikarrak, irlandarrak nahiz txekiarrek eskainiko ditugu». Aipatzekoa da, Leikim Steinbier garagardoak 2010. urteko Alemaniako garagardorik onenaren saria jaso zuela.

Edari honi guztiari laguntzeko, urteroko moduan, Bratwust eta Frankfurt saltxitxak eta ukondoa prestatuko dituzte Zerkausiko sukaldetan; aurten, 1,5 kiloko ukondoak izango dira, aurreko urteetan baino ia bikoitza, «jendea gustora geratzea» baita antolatzaileen nahia, eta euro bat gehiago ordaindu beharko da. Azkenburuak, berriz, gazta eta irasagarrak, nahiz euskal pastela izango dira. Gaurtik larunbatera bitarte, garagardo azoka 18:00etatik



Lau boluntario, atzo, Zerkausian izango den azoka prestatzen. I. GARCIA LANDA

00:00etara arte izango da zabalik; igandean, berriz, 23:00etan itxiko dute Zerkausiko barra.

Aurten, gainera, kartoizko edukiontzia gutxituko dituzte Tolosaldea IKT, Tolosa CF Nesken

Txirindulari Taldea, Judo Club Tolosa eta Igarondo Urpekoak taldeetako antolatzaileek, Tolosako Udalak berrerabil daitezkeen platerak utziko baitzikiete, hondakinak gutxitzeko helburuz.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia ◊ Tolosa**‘URA’ ETA ‘HARRIKUMEAK’ OBRAK GORPUZTEN ARI DIRA**

Eskulturastearen asmoetako bat kultura kalera ateratzea da. Eguraldiak atzo asko lagundu ez bazuen ere, pixkana gorpuzten ari dira lehiaketan bigarren eta hirugarren saria eskuratutako obrak. Daniel Mera Trian-

guloa eta Zerkausiko terrazaren artean gauzatzen ari da *Ura* izeneko lana (ezkerreko argazkian). Atzo, esaterako, probak egiten ari zen ur bonbarekin. Bere alde-rik, Elena Aitzkoa *Harrikumeak* proiektua egiten ari da

Alondegia plazan (eskuineko argazkian). Haurren bisita jasotzen ari da arratsaldeetan, beraiek ekarritako elementuekin gauzatzen ari baita gero plazan jarriko dituen eskulturak.^{16.L}

Asier Mendizabal ◊ Eskultorea

«Aurretik euskal eskulturaren definizio bat jartzen badugu, aurreiritzi bilakatuko da»**Imanol Garcia Landa**

Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) eskultoreak hitzaldia emango du, gaur, Eskulturastearren barruan, *Abangoardia eta tradizioari buruzko gogoeta batzuk: Euskal Eskultura mito gisa* izenburupean. Jose Mari Armentia Alfa Arteko zuzendaria ariko da aurkezle eta moderatzaile gisa. Mendizabal, bestalde, Eskulturastearren lehiaketan epaimahaikide gisa aritu da.

Hitzaldian zer azalduko duzu?

Alde batetik, eskultura publikoaren funtzioarekiko gogoeta batzuk: zer den, zertarako den, zer genealogia duen... Horretarako zenbait interpretazio erabiliko ditut tradizioetik eta abangoardiatik. Abangoardiatik funtzio hori dudan jartzen da. Bestetik tradizioa ez da beti mugitzen ez dena, horrela uste bada ere.

Eskulturan, hain justu, abangoardia eta tradizioa ezberdintzeak bere konplexutasuna du. Izan ere, Txillida eta Oteiza tradizio dira?

Gurean, eta hori da hitzaldiaren bigarren zatia, oso kasu berezia ematen da irakurketa horrekin. Gurea bada abangoardia bat, genuinoa bere asmo eta moduetan, baina berantiarra da oso. Borondate abangoardista hori benetan

eragikorra izan denean, ia 60ko hamarkada zen. Berantiarra izanik ere, mantentzen du abangoardiaren tipologia guztia. Une horretan, lengoia berri horrek behar simboliko bat bete zuen. Gabezia bat zegoen, nortasunaren unibertso bat berritzeko beharra. Guk jaso dugun unibertso simbolikoa, bisuala batik bat, nolabait abertzaletasun ideia erromantikotik datorkigu, baina oso ibilbide gutxi dauka urte askotan, egoera soziopolitikoak hala behartuta. 60ko hamarkada arte ere bazirudien nortasunaren errepresentazio horiek beti pasatu behar zutela halako esentzialismo erromantikotik. Hori berri-dazterakoan, indar guztiz egiten da, eta badaude zenbait arrazoi baldintzatzen dutenak aldaketa horren motorra eskultorea izatea.

Hori beste kultura batzuetan eman da?

Egoera berezia da, ez zait gogora etortzen horrelako baliokidetasunik, non halako unibertso simboliko kolektibo baten motor nagusia eskultura, eta gainera eskultura abstraktua, izatea. Tradizio eta abangoardiaren kontu horretan, azkarregi gertatu diren bersinbolizazio horietan, gure abangoardia segituan bila-

katu da tradizio. Niri interesatzen zaidana da kasu honekin oso ondo esplikatzeko delako zer prozesu parte hartzen duten sinbolizazio ariketa horretan. Nola printzipioz abstraktua, guztiz esperimental, den proiektu bat une batean testuinguru metaforiko batean jartzen den eta nola mito bilakatzen den. Euskal eskulturaren kasua erabiliko dut, ez gurea delako edo gertu dugulako bakarrik, baizik uste dudalako oso baliagarria dela azaltzeko nola ematen den hori. Gainera, badugu une bat nolabaiteko indarkeria simboliko bat gertatzen dena, esanahi hori inposatzeko lengoia horri. Nola, azkenean, mitoa irekia izatetik, mito interesatua izatera pasatzen den, esanahi bakar batekin.

Zer eragin jaso duzue mugimendu horretatik hurrengo belaunaldiko artistek?

Nire burua eskultoretzat definitzerakoan ez da espresiorako eskultura bakarrik erabiltzen dudalako, eskulturaz gain beste hainbat bitarteko erabiltzen baititut. Kontua da eskulturarena den arazo bat nire bezala hartzen dudala, batez ere genealogia guzti hori nire gain hartzen dudalako, arazo denez gero, herentzia bat bezala. Guztia da Oteiza, Txil-



MIKEL ALBISU

illida, Basterretxea, Ibarrola... Hor eraten delako eskulturaren funtzio publikoaren definizioa eta abangoardia den arteko harreman oso problematikoa, baina niretzako oinarritzakoa dena.

Eskulturastearren lehiaketaren epaimahaian izan zara. Proposamen berriak saritzeko joera hartu duzue.

Berritatz jotzen diren praktikak ez dira hain berriak. Arte garaikidearen azken 30 urteetako diskurtsoan aurrekariak eta adibideak badaude. Eskultura publikoaren problema garatu izan denean, bada zenbait irtenbide erabili izan direnak. Ez da hain berria, ez da hain esperimental, ez dira proiektuak itsuan dabilzanak. Kontua ez da hainbeste berria eta zaharra, kontua da tradizioetik daskarkigun eskulturaren interpretazio itxi hori. Hori da arazoa. Aurretik euskal eskulturaren definizio bat jartzen baldin badugu, aurreiritzi bilakatuko da. Auke-

ratu diren proiektuak bere logika eta bere tradizioa duten lanak dira, baina gertatzen da guri arrotz egiten zaizkigula. Honek guztiak eskultura publikoaren funtzioarekiko erreflexioa dakar eta hori da egin behar dena. Ni pertsonalki desiatzen nengoen eskultura tradizio baten barrutik egindako erreflexio bat ikusteko, eta eskulturaren barrutik arazo hori askatzeko gai zen lan bat identifikatzeko. Ez dut aurkitu, baina ez Tolosan bakarrik, ez dut inon aurkitzen. Oso zaila da, baina hori da gure lana: eskulturaren praktika bat bere buruari galdetuko diona bere funtzioaz, bere testuinguruaz, bere beharraz.

Zer iruditzen zaizu Eskulturastea ekimena?

Oso berezia da, eta ezin da ulertu Tolosaren berezitasun batzuk ulertu gabe. Eskertzekoa da ekimena hau eta ilusio handiz hartu dut parte.

Mikel Goñiren partidarekin girotuko dute II. Txakolin Eguna

22 txakolindegiren produktuez gozatzeko aukera egongo da, etzi Amasan, Uxo Toki elkartearen eskutik

Asier Imaz Amasa

Amasako Uxo Toki elkarteak II. Txakolin Eguna antolatuko du herri-auzoan, irailaren 15ean. Jaia girotzeko, frontoian bi pilota partida jokatzeko dira 17:00etatik aurrera. Lehen lehian, eskualdeko pilotari gazteak irtengo dira kantxara, eta bigarrenen, Mikel Goñiren txanda izango da. Orozko izarrak Eulaterekin osatuko du bikotea, eta aurkar bezala, Patxi Eugi txapelduna eta Galarza VI.a izango ditu.

Frontoirako sarrera erosten dutenek, txakolin jaietan parte hartzeko aukera izango dute, ondoren. Pilota partidako txartelaren truke, antolatzaileek, edalontzia eta bi pintxo jateko aukera eman goko dute.

II. Txakolin Egunean 30 lagun inguru ariko dira lanean. Iazko arrakastaren jarraipena da aurtengoa, Uxo Toki elkarteak kideek jakinarazi dutenez. Lehen jai

egunarekin gustura gelditu ziren, eta bigarrena egiteko indarrak hor kokatu dituzte. Jakin badakite jendea hurbilduz gero, giro ederra egongo dela Amasan: txakolina, pintxoak, pilota eta musika izango dira Uxo Toki lagun-garri jarriko dituen osagaiak.

Festaren osagarri hauek ez dira kasualitatea, elkarteak kideen esanetan: «Garai batean bazen Amasan txakolindegia bat, beraz, egunaren ideia hortik sortu zen; gero, frontoia ere hor daukagu, eta jaia girotzeko pilota partidak antolatzea erabaki genuen. Guztia euskal kultura landuaz egin nahi dugunez, gauera arte musika ere egongo da».

Uxo Toki elkarteak, ekimen honen bidez, Amasa herri-auzoari indarra eman nahi dio. Helburu horretan laguntzeagatik esker-rak eman nahi izan dizkie Amasa-Villabonako Udalarai. Amasako gazte zein helduei, elkarteak bazkide eta zuzendaritzari, txakolindegiei eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariari.

22 txakolindegia

I. Txakolin Egunean hamaika txakolindegiren produktuak dastatzeko aukera egon zen Amasan. Aurten, zenbaki hori bikoiztea



Uxo Toki elkarteak kideek Amasako II. Txakolin Eguna aurkeztu zuten astearte iluntzean. A. IMAZ

lortu dute Uxo Toki elkarteak kideek. Amasara urbiltzen denak 22 txakolin edukiko ditu aurrez aurre. Sabelean oreka egiteko, pintxo beroak eta hotzak jarriko dituzte elkarteak.

Eginiko lan guztiaren neurria, zentzu batean behintzat, larunbatean Amasara gerturatzeko diren jarriko dutela badakite Uxo Tokiok, horregatik, eskualde guztiko herritarrengana zuzendu nahi izan dute: «Jende guztia gonbidatu nahi dugu II. Txakolin Egunerari. Jaialdi bikaina antolatuko dugu, eta giro ederra egongo delakoan gaude. Txakolinaz, pilotaz eta pintxoaz gozatzeko gain, dantatzeko aukera ere izango da Amasan larunbatean».

↓ Irailak 15, etzi, 17:00etatik aurrera

TXAKOLINDEGIAK

■ Ulazia, Aizpurua, Basa lore, Bengoetxea, Mokoroa, Talai berri, Urki, Akarregi txiki, Iruza, Primo, Sagarmina, Gaineta, Ameztoi, Arregi, Rezabal, Gaintza, Upaingoa, Zudugarai, Agerre, Gorostidi, K5 Argiñano eta Adur.

PILOTA PARTIDAK

■ **Lehen partida:** Otaño-Ormazabal (Amasa-Villabona), Erasun-Labakaren (Zizurkil) aurka.
 ■ **Bigarren partida:** Goñi II-Eulate, Eugi-Galarza VI.aren aurka.

TXARTELAK SALGAI

■ **Amasa-Villabonan:** Amasa kafetegia, Larrea kafetegia, Iru aldeta, Or konpon, Urrizpe, Obaba, Iturri goxo, Iratzar, Xiker eta Itzalpen.
 ■ **Zizurkil:** Egarrin eta Iriarten.
 ■ **Asteasun:** Iturriondon.

SALNEURRIAK

■ **Helduak:** 12 euro.
 ■ **6-12 urte:** 6 euro.
 ■ **6 urtera arte:** Dohainik.
 ■ **Txakolin dastatzea eta bi pintxo:** 5 euro.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZaren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizano nekazalburuzineak Zinzaga, 46 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) Tel: 943 042 337 / 955 721 834 www.rekatur.net/artizano

hitza

BEZaren igoserak kiroldegiko kuota igoko du Anoetan

Ikasturte berriko kirol ikastaroak ere garestiagoak izango dira; informazio guztia kiroldegian eska daiteke

A. Imaz Anoeta

Anoetako kiroldegiko arduradunak azaldu duenez, BEZaren igosera medio, kiroldegiko kuota igoko dituzte. Orain arte, kuota barruan %8ko BEZa hartzen kontuan, baina hemendik aurrera, 20/2012 Errege Dekretuak dionari jarraituz, %21eko izango da kopuru hori, «ondorioz, kiroldegiko kuota guztiak igotzera be-

hartuta aurkitzen gara» azaldu du kiroldegiko arduradunak.

BEZak ez du kiroldegiko kuota bakarrik izango eragina, baita ikastaroetan ere. 2012-2013 ikasturteko kirol ikastaroei buruzko informazioan igosera hau ez zen aurreikusten, beraz, herritarren artean banatu den informazioan agertzen diren kuota ez dira zuzenak, eta horiei BEZaren igosera aplikatu behar zaie.

Tarifa berriak, abonatu, alokairu, eguneko sarrera zein ikastaroen etakoak, www.bpxport.es webgunean edo kiroldegian bertan daude. Informazio gehiago nahi izanez gero, anoeta@bpxport.es helbidean eska daiteke, edo kiroldegiko harreraren.

Kultur ikastaroetan izena emateko epea hilaren 17an irekiko da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko Kultur Sailak hainbat ikastaro prestatu ditu datorren denboraldira. Hala, honakoek osatzen dute aurtengo eskaintza: egur lanketa; zaharberritzea eta arte aplikatuak; pintura gazte eta helduentzat (12 urtetik aurrera), eta pintura haurrentzat. Kultur ikastaroei buruzko informazio zehatzak etxe ere banatuko dute. Izen-emateko epea irailaren 17an zabaldu eta 26ean itxiko da. Horretarako, Amasa-Villabonako Udaleko Kultura Sailera gerturatu behar dute interesatuek. Informazio gehiago 943 69 16 55 zenbakira deitu behar da, edo kultura@villabona.net era idatzi.

Jolasa eta abentura, Abaltzisketan

Aralarko Natur Parkean ibilaldi berezia egingo dute larunbatean; ordu erdiko txangoa izango da

E. Maiz Alegia

Larraitzetik Abaltzisketara jolasaz lagundutako ibilaldia egingo dute, larunbatean. Larraitzeko informazio puntuan hasi eta bukatuko da. 10:30ean emango diote hasiera, eta ibilaldiak eta jolasak ordu bat eta 30 minutuko iraupena izango du. Ondoren, abentura

parkean geratzen denak, beste ordu bat izango du gozamenarako. Antolatzaileek, aurrez izena ematea gomendatzen dute, edota egunean bertan garaiz iristea lekua eduki ahal izateko.

Sei urtetik gorako haurrei eta helduei zuzendua dago, hau da, familian joateko egokia da. Ibilaldia eta jolasa soilik egin nahi duenak ez du ezer ordaindu behar. Horrez gain abentura parkerako sarrera nahi duenak, ordea, ordaindu egin beharko du. 4 eta 8 urte artekoek 5 euro; 9 eta 10 urtekoek, 7 euro; eta 11 urtetik gorakoek, 10 euro. Izena emateko deitu, 943 18 03 35 telefono zenbakira.

Irudia Tolosa



KANTUJIRATIK EHUN LAGUN, TUTERARA

Igandean ehun lagun Tolosatik Tuterara joan ziren kantujiran parte hartzeko. Tolosatik 08:00etan irtenda, Castejonon hamaiketako ederra egin zuten, eta ondoren, kantazeari ekin zioten Tuterako plaza eta kaleetan. Euskal Herriko beste zenbait tokitako kantuzaleekin elkartu

ziren, eta tolosarrek zapi urdinak lepoan lotuta ibili zituzten. Arratsaldean ere kantuekin alaitu zituzten kaleak. Bestetik, iraileko kantujirarako entseguak, gaur eta hilaren 27an izango dira, 20:00etan, Tolosako Musika Eskolan. Hilabete honetan trikitilarien laguntza izango dute. HITZA

→ Laburrak

Alegiako Udala baratze komunitarioak jarri nahian

ALEGIA Alegiako Udalak baratze komunitarioen proiektua martxan jarri du. Horretan hasi aurretik, ordea, herritarren interesa zein den jakin nahi du. Herrian baratzea izan nahi duenak, hilabete honetan udal txean izena eman beharko du.

Gaurtik filmak ikusteko aukera, Leidor zineman

TOLOSA Gaur, 19:15ean eta 21:45ean *Elena* filma ikusteko aukera izango da, zine forumean. Larunbatean, 19:30ean eta 22:30ean, *Prometheus* eskainiko dute. Igandean, 17:00etan, haurrentzako den *Ice Age 4* izango da, eta 19:30ean, *Elefante blanco* filma. Astelehenetan, *Elefante blanco* emango dute, 20:30ean.

Tolosaldeko hontzak Behobiara begira daude

TOLOSA Tolosaldeko hontzak, Behobia lasterketara begira jarri direla eta, talde bat osatu nahi da 06:00ak eta 06:30ak aldera korri egitera joateko. Gizon eta emakumeei zabaldua dago, eta interesadunek bileratxo bat egingo lukete ordua eta lekua zehaztu ahal izateko. Informazio gehiago jasotzeko Aralar Kirolak dendara joan eta Mertzterengatik galdetu edota deitu 635 736 375 telefono zenbakira, Aitorrengatik galdetuz.

Urkiren apustua ikustera joateko autobusa

ORENDAIN Hilaren 23an Urkik Alkortaren aurkako apustua du, Zizurkilen. Jendeak joateko asmoa badu, Orendainen, autobusa antolatuko dute, doan. Eltxo elkartearen bazkalteko aukera ere izango da. Izena udal txean eman behar da, hilaren 14a baino lehen.

Eneritz Maiz Alegia

Alegian Kalebeherako festak ospatuko dituzte, asteburuan. Bihar, 19:00etan botako dute txupinazoa, eta ondoren, patata tortilla lehiaketa egingo dute eta zahagiardoa izango dute egindako tortilla guztiei laguntzeko. Giro alaitzeko, berriz, trikiti doinuak izango dituzte.

Larunbatean, bertsozaleen eguna izango da. Hasteko bertso eskolak elkartuko dira, eta gauean bertso saioa izango da. Baina kirola eta dantza egin nahi duenak ere aukera izango du, egunean zehar. Azken eguna, igandea, herriko dantzariak, txakolin dastatzeak, bazkariak, eta pilota eta pala txapelketako finalek beteko dute, besteak beste.

↓ Alegiako Kalebeherako jaiak

IRAILAK 14, OSTIRALA

- **19:00.** Festel hasiera emateko, txupinazoa eta buruhandiak izango dira.
- **20:00.** Patata tortilla lehiaketa, zahagiardoa eta trikitilariak izango dira.

IRAILAK 15, LARUNBATA

- **09:30.** Eskualdeko bertso eskolen aurkezpena, eta batzarra egingo dute. Ondoren, bazkaria eta bertso poteoa.
- **12:00.** Krosa.
- **16:00.** Pala txapelketa eta ume jolasak. Zinta karrera egingo dute.

- **21:00.** Zahagiardoa.
- **22:30.** Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Aitor Urbieta, Asier Azpiroz eta Hodei Irueta-goiena.
- **Ondoren.** Trikitilariak.

IRAILAK 16, IGANDEA

- **12:00.** Herriko dantzariak, txakolin dastatzea eta sardina erreak izango dira.
- **14:30.** Bazkaria.
- **17:00.** Esku pilota eta pala txapelketako finalak jokatuko dituzte.
- **Ondoren.** Zahagiardoa egingo dute. Afolostean, mus txapelketa izango da.

Intxurreko pilotarien partidak izango dira

Zazpi partida jokatuko dituzte Intxurrekoek, eta horietatik bi ikaztegietan izango dira, larunbatean

E. Maiz Ikaztegieta

Pilotak ia ez du atsedenik, eta Intxurre Pilota eskolako pilotariak partidak izango dituzte, asteburuan. Ikaztegietak pilotalekuan jokatuko dituzte horietako bi.

Larunbatean, 11:00etan, kadeeten mailan, Intxurreko bi bikote

ek elkarren aurka jokatu dute. Mozo eta Murua bikotea, Luzuriaga anaien aurka ariko dira. Ondoren, nagusien mailan, Gaillurralde eta Erastorbek, Igeldoko bikotearen aurka jokatu beharko du.

Partida hauez gain, ordea, beste bost partidak izango dira. Kadeeten mailan, Hernani eta Ilunberen aurka jokatu beharko dute Intxurreko bikoteek. Jubemil mailan, Euskal Giroako bikotearen aurkakoa izango da, eta azkenaz, nagusien mailakoa izango da. Arrasateko bikotearen aurka lehiatuko dira Alonso eta Erauskin.

Ibarrako erretirodunek eta pentsiodunek gaur hasiko dituzte euren jaiak

Eguerdian botako dute txupinazoa, eta igandera bitarte ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango dute

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Bizi-Nahi erretirodunen eta pentsiodunen elkartearen jaiak hasiko dira gaur. Igandera bitarte, txapelketak, bazkariak eta afariak izango dituzte.

Gaur eguerdian botako dute txupinazoa, arratsaldean karta jokoetan ariko dira, eta gauean, jatekoa eta edatekoa izango da guztientzat. Bihar, berriz, ibilaldi neurtuan parte hartuko dute animatzen diren guztiak. Gauean, zuzendaritza batzordeko kideek prestatu eta zerbitzaturiko afaria izango dute Bizi-Nahi elkartearen bertan. Elkartearen bulegoan eman beharko dute izena afarira joan nahi dutenek.

Larunbatean, urtero moduan, toka txapelketa egingo dute. Irabazleek sariak jasoko dituzte, eta Ibarrako tomate eta piperrak ere banatuko dute guztientzat. Arratsaldean, berriz, bingoan jokatu dute erretirodunek.

Bestalde, azken eguneko ekitaldi nagusia kiroldegian egingo duten bazkaria izango da. Bazkideen artean opariak banatuko dituzte eta dantzaldia egingo dute.

↓ Egitaraua

IRAILAK 13, OSTEGUNA

- **12:00.** Jaien hasiera, ikurrina altxatuz eta txupinazoarekin. Ondoren, jatekoa eta edatekoa.
- **16:00.** Mus, txintxon, eskoba eta puntu txapelketa azkarra.
- **20:00.** Txapelketan parte hartu dutenentzat luntxa.

IRAILAK 14, OSTIRALA

- **09:30.** Ibilaldi neurtua. Armatzerakoan, hamaiketako.
- **20:00.** Afaria, elkartearen.
- **Afalostean.** Dantzaldia.

IRAILAK 15, LARUNBATA

- **11:30.** Bikote mistoez osatutako toka txapelketa. Ondoren, Ibarrako tomate eta piperrak dastatzea.
- **16:30-19:30.** Bingoa

IRAILAK 16, IGANDEA

- **09:00.** Diana.
- **10:30.** Hildako bazkideen aldeko meza, San Bartolome elizan.
- **14:00.** Bazkideen bazkaria, Belabieta kiroldegian. Oparien zozketa egingo da, eta ondoren dantzaldia.
- **19:30.** Jaien amaierako txupinazoa.

→ Laburrak

Erretirodunen bazkarian izena emateko aukera

LEABURU Erretirodunen eguna ospatuko dute irailaren 23an Leaburun. Urtero bezala, bazkaria egingo dute Zappi Bide elkartearen. Bada, irailaren 18a baino lehen eman beharko da izena, udaletxera deituta.

Boluntarioak behar ditu misio taldeak, azokarako

IBARRA Ibarrako Misio taldeak bi postu jarriko ditu irailaren 23an Ibarra izango den azoka berezian. Gastronomía produktak eta artisautza jarriko dute, eta bildutako dirua proiektuettara bideratuko dute. Postuak jarri eta kendu eta bertan egoteko boluntarioak behar dituzte. 676 623 990 edo 650 416 949ra deitu behar da parte hartzeko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak,

IGANDETARAKO ARGAZKILARIA

behar du

Interesa duzuenok, bidali curriculum: **tolosaldean@hitza.info** helbide elektronikora

Ingelesez trebatzen

Uzturpe ikastolan FIE programa jarri dute martxan; ingelesez ari dira LH5eko ikasleak, lehen bi asteetan

Iñigo Terradillos Ibarra

Modu berezian ekin diete Uzturpe ikastolako LH5eko ikasleek ikasturte berriari. Izan ere, lehen-dabiziko hamabostaldian ingeles hitusean ariko dira. Ingelesez hitz egin, irakurri eta idatziko dute ikastordu guztietan.

Ikastolen elkarteko Eleanitz proiektuaren baitako FIE (Four-night Immersion to Explorers) programa ari dira gauzatzen lehen aldiz Ibarrako ikastolako ikasle hauek. Jatorrizko bi ingeles irakaslerekin ari dira lanean. Horiekin batera egunean lau ordu baino gehiago aritzen dira ingelesa lantzen, eta horrela igaroko dituzte lehen bi asteak.

Jolasak, abestiak...

Ingeleseko ohiko ariketak egin dituzte, baina, horrez gain, jolasak, abestiak, antzezlanek... ere izaten dute lekua. Eta irakasle-

kin ezezik, euren artean komunikatzeko ingelesa erabiltzen dute.

Ingelesak gaur egun duen garrantzia jabetuta, ikasleen artean «indartu eta ahalik eta gaitasun handiagoa izan dezaten» FIE programari ekiteko apustua egin du Uzturpek ikasturte honetan. «Hizkuntza guztietan hezteko ahalik eta formakuntza aberatse- na eskaintzea da gure helburua», azaldu dute ikastolatik. Lehen esperientzia honetaz egin duten balantzeak erabakiko du jarraipena emango zaion ala ez. Oraingo, ikasleak, gurasoak eta irakasleak «oso gustura» daude.



Sorgin batek edabe magikoa prestatu zuen, ingelesez eskaintako antzezlanean, atzo, Uzturpen. I.T.

Arantxa Balerdi • FIE proiektuaren koordinatzailea

«Horrelako formakuntza doan izatea garrantzitsua da»

I. Terradillos Ibarra

Arantxa Balerdi Uzturpe ikastolako ingeles irakaslea da, eta lehen aldiz martxan jarri duen FIE programa koordinatzen ari da. «Gogotsu eta ilusioz beterik» ekin diote ikasturte berriari.

Zein helburu du FIE programak?

Hizkuntzak indartzea eta hizkuntzen arteko oreka eta irakaskuntza ahalik eta orekatuena izatea da helburua. Gure ikastolaren egitasmo nagusietako bat hizkuntzaren alorra indartsua izatea da. Horregatik, ingelesa indartu eta ikasleei gerturatzeko helburuz Enjoy english jardueretan parte hartzen dugu, eta orain beste pauso bat eman nahi izan dugu programa honetan sartuz.

Ingelesa baino ez dute landuko ikasleak lehen egunetan.

Hala da. 09:00etatik 13:00a arte in-

geleseko ariketak burutzen dituzte. Ez dute ez matematikarik ez historiarik ikasiko lehen egun hauetan, soilik ingelesa.

Estreineko aldia da zuentzat.

Ez dugu esperientziarik, lehendabiziko aldia baita. Beraz, beldur edo errespetu pixka batekin ekin diogu ekimenari, baina, aldi berean, ilusioz beterik eta gogotsu gaude.

Nolako erantzuna izan du lehen egunetan ikasleengan?

Asko gustatzen zaie, gustura eta motibatuta daude. Ingeleserako ordu asko izaten dituzte, eta orduan, jokoez, abestiak, antzezlanek... tarte handia izaten dute, eta horrek asko erakartzen ditu. Programaren bukaeran, datorren ostiralean, antzezlan bat prestatu behar dute, eta ondoren antzeztu. Horretarako, taldetan banatuko dira, eta guztien artean ikuskizuna gauzatuko dute. Noski, guztia ingelesez.

Eta gurasoengan?

Gurasoen aldetik jasotako erantzuna ere oso ona izan da. Oso gustura hartu zuten ikasturte honetan programa martxan jartzera gindoazela.

LH5erako ezezik beste maila batzuetara ere zabaldu al daiteke?

Ikastolen elkartetik programa LH5erako proposatzen dute, eta ikastola bakoitzak erabakitzen du nola martxan jarri. Ekonomikoki esfortzu handia eskatzen du irakasleak behar direlako, beraz, zaila litzateke zabaltzea.

Esfortzu hori emaitzetan nabaritu ko al da?

Pentsa egunean lau ordu baino gehiago lantzen dute ingelesa. Horrelako formakuntza bat doan jasotzeko aukera izatea oso garrantzitsua da. Ikastetxe batzuetan ordaindu egin behar izaten da mota honetako formakuntza, eta guk gure gain hartu dugu gastua, gure apustua izan baita.

Pello Joxe Aranburu ◊ Idazlea

‘Antonio Sorarrain Amunarriz, 1928-2011, biografia eta obra’ izeneko liburua idatzi du idazle alkizarrak.

«Sorarrainen biografia hau partziala eta subjektiboa da»

Asier Imaz Alkiza

Alkizako *Oilategitik* aldizkariko zuzendaria da Pello Joxe Aranburu (Alkiza, 1936). Antonio Sorarrain Amunarrizekin «zorretan» zegoelako idatzi du berari buruzko liburua: *Antonio Sorarrain Amunarriz, 1928-2011, biografia eta obra*. Iragan ostegunean, Alkizako jaien lehen egunean, herriarren aurrean aurkeztu zuen lana. Apaiz langilea, idazlea, zuzendaria, Alkizanjaio eta Zizurkilan bizi den goierritarra... hizkiz harrapatzea zaila den gizasemea da Aranburu.

Biografia eta obra jartzten du liburua izenburuaren amaieran. Zein lotura dute Sorarrainen bi atal horiek zurekin?

Iazko urtearen azken aldean hil zen. Ordurako ongi ezagutzen nuen, eta bere kultur ondare guztia nire esku utzi zuen: egun Alkizako liburategian dauden 400 liburu, hamabost bat kaxa bere idatzi eta oharrekin... guztia. Lan horien artean begira nembilela, argitaratu gabeko eta inork irakurri gabeko nobela bat, poesia piloa eta bertsoak zeuden.

Zergatik utzi zizun bere kultur ondare guztia zuri?

Ez nekien zergatik. Xabier Azurmendirekin ere gauza bera gertatu zitzaidan, hil ondoren, nire esku utzi zuen bere kultur onda-

rea. Harremanak landu egin behar dira, eta bizi direla, geroko horrek ez er gutzirako balio du.

Sorarrainen inguruko aurkikuntzez arizinen...

Antoniok (Sorarrain) zerbait mezezi zuela esan nien bere inguruko senide eta lagunei. Hitza eman eta zorretan gelditu nintzen. Liburu hau idaztean, nire zorra kendu dut, orain beste batzuei gelditzen zaie.

Urtebete baino lehen kitatu duzu zorra.

Sei hilabetetako lana izan da, azkarra. Esku artean nuen materiala bakarrik erabili dut, ez baitut beste inor elkarrizketatu. Horrelako liburuetan hori beharrezkoa izaten da; horregatik, lan hau, biografia partziala eta subjektiboa dela esaten dut.

Bistadizo bat ematean, arina dela dirudi?

Arina da, argazki eta bere idatzi askorekin, bere estiloa errespetatzen saiatu naiz.

Nola antolatu duzu liburua?

Bi zatitan. Material gehiago nuen, zati handiena bere obraren inguruko da. Biografiak, aldiz, lau barne zati edo lau gune ditu.

Lehena, Alkiza izango da, ezta?

Bai, bertan jaio eta lehen ikasketak bertan egin zituelako. 12-13 urterekin joan zen Arantzazura, fraide ikasketak egitera. Beste leku batzuetan ibili baldin bazen ere, oinarria Arantzazu izan zen,



A. IMAZ

bigarren gunea. Bizi guztirako markatua gelditu zen bertan, eta liburuaren aurkezpenean esan nuen bezala, zilborreste hori ez zuen sekula moztu, ezta ezkondu eta Sondikara joan zenean ere. Idazten ere bertan hasi zen, dezente gainera. Handik hirugarren gunera bidali zuten, Zarautzera.

Eta bertan marka utzi zuen.

Oraindik frantziskotarren esku dagoen eskola eraiki eta sortu zuen, beste hainbatekin batera. Horrekin batera, gauza benetan harrigarria egin zuen Zarautzen: gau eskola bat sortu eta euskara eskolak ematen hasi zen. Harri-garria zera da, 1955-1960. urtea zela hori egiten hasi zenean. Guzti honengatik, Zarautzen jendeak asko estimatzen du Antonio Sorarrain Amunarriz.

68ko maiatzean Paristik haize berriak hedatu ziren. Sorarrainengan eraginik izan al zuen garai horrek?

Euskal Herrian ere garai nahasiak izan ziren. Apaiza askok sotanak utzi zituzten, apaiz langile izatera pasatu ziren, batzuk ezkondu ere egin ziren... kontzilia-

ere hor kokatu behar da. Ez dakit nolako eragina eduki zuen Antonio Sorarrainengan guzti horrek, baina ondorioak hor daude.

Ezkondu eta Sondikara joan zen, lagun-garren gunera.

Fraidea zen, jateko nahikoa izaten zen konbentuan... dena utzi, ezkondu eta lanean hasi zen. Sondikan, bulegoan. Fraide buru izan zenez, kontuekin ongi moldatzen zen, eta Aceros Olarran sartu zen. Hau ez dakit ziur horrela den, baina bere ama Amunarriz zen, eta honen ahizpa, Olarrako nagusiaren emaztea. Nik uste horrela iritsi zela Sondikara.

Bere sorkuntzaren inguruan zer esan zenezake?

Literatura modernoa deiturikoaren aitzindaria izan zen; erabat erromantikoa. Liburuan bere obrari eman diot garrantzia handiena, eta hor zintzilik dauden hainbat gai azaltzen dira. Alde batetik, Alkizako euskararen azterketa linguistikoa egin nahi izan zuen betidanik. Guk egitea nahi zuen, baina azkenean ulertarazi genion hori hizkuntzalari baten lana zela, eta ez gurea. Ho-

rri buruz material piloa zuen, eta guzti hori hor dago, norbaiten esperoan. Bestalde, argitaratu gabeko lanak utzi zituen, nobela, poesia ugari... horiek ere argitaratu egin beharko lireratekeela uste dut; idazle bezala merezi baitu horrenbeste.

Sorarrain eta Alkizaren arteko harremana nolakoa zen?

Zuzenbide kanonikoaren arabera, fraide ibilitako herri batera ezin zara sotanarik gabe itzuli. Elizarekin ez zuenez erabat hautsi, zaila egiten zitzaion Alkizara joatea. Bere aitak ere ez omen zion uzten... pentsa nolako indarra zuen lege horrek euren buruetan. Fraide baten bidez, kostata, baimena lortu nuen eta 2001ean eraman nuen Alkizara, bera konbentzitzen asko saiatu ondoren. Elkarrekin egindako liburuak aurkeztu genuen bisita horretan, *Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1948-1950)*. Uste dut, horregatik irabazi nuela. Gero, Alkizako *Oilategitik* aldizkarian kolaboratzen hasi zen; urtero bere artikulua idazten zuen.

◊ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

† JOSEFA ANTONIA ECHEVESTE IRAZUSTA andrea

(Cayetano Salaberriaren alarguna eta Emilio Salaberria preso politikoaren ama)

Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere arimaren zuzendaria: Bittor Gorria; seme-alabak: Emilio, Maritxu eta Juan Goñi; bilobak: Iker eta Uxuri; birbilobak: Oihan, Aitzol, Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaldeak. Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA arratsaldeko ZAZPIETAN Villabonako JESUSEN BIHOTZA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Larrea auzoa.

Oharra: Goputz beila Villabonako FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egongo da osteguna goizeko 09:45ak arte.



VILLABONAN, 2012ko irailaren 13a



19°
14°

GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	21°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosalde.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVI. Argazki Lehiaketa



FINLANDIATIK LETONIARA, IRUDIEN BILA

Gaurko bi argazkiak urruneko tokietan ateratakak dira, lehena Finlandian, eta bigarrena, Letonian. Leire Garmendia Helsinkin izan da uda honetan eta ezkontza bateko argazkiak ateratzen ari zirela hartu zuen lehiaketara bidali duen irudia.

Ines Berasategi, aldiz, Rigan, Letoniako hiriburuan, eguzkia ezkututzen ari zen momentuan ateratak argazkia aukeratu du. Lehiaketan parte hartzeko argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira. L.G.-I.B.



Bidali zure argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAko materiala zozkatuko dugu.

XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

1.Saria: Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Bermokiz,6-48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria: Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa. www.ardnazesstudios.com

3.Saria: Orue erretegian, bi pertsonentzako otordua. Samarniego kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11 - 20400 (TOLOSA)

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Bizi Nahi erretirodun eta pentsiodunen elkartearen jaiak hasiko dira gaur eta igandean amaituko dira. Gaur 12:00etan hasiko dituzte jaiak, 16:00etan mus, txintxon eta puntu txapelketa azkarra egingo dute, eta 20:00etan txapelketan hartu dutenei askaria emango diete.
- **Tolosa.** Eskulturastearen barruan, gaur, 20:00etan, Topic zentroan, *Abangoardia eta tradizioari buruzko gogoeta batzuk: Euskal Eskultura mito gisa* hitzaldia, Asier Mendizabal eskultorearen eskutik. Alfa Arteko zuzendari den Jose Maria Armentia izango da aurkezle eta moderatzailea.
- **Tolosa.** Iraileko Kantujirako entsegua, gaur, 20:00etan, musika eskolan. Hil honetan Oinatz Martinez eta konpainia trikitilarien laguntza izango dute. Iraileko hurrengo entsegua hilaren 27an egingo dute ordu eta leku berean.
- **Tolosa.** Galtzaundi Irakurle Taldearen ikasturteko lehen saioa egingo dute gaur, 19:30ean, kultur etxean. Ramon Saizarbitoria idazlearen *Martutene* liburua izango dute hizpide.
- **Tolosa.** Garagardo Azoka irekiko dute gaur, 18:00etan. Gaur,

bihar eta etzi 00:00ak arte egongo da zabalik, eta igandean 23:00etan itxiko dute Garagardo Azoka.

■ **Ibarra.** Ibarrako Bai Euskal Herriari taldeak larunbatean, hilak 15, Algortan ospatuko duen Euskal Herria Egunera joateko deia egin du. Txartelak Ibarrako Danon, Sendi Ekintza eta Atari tabernetan erosi daitezke, edo Tolosako Denak tabernan 10 euroren truke.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Zine forumaren barruan gaur, *Elena* filma ikusi ahal izango da jatorrizko bertsoan, 19:15ean eta 21:45ean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia egingo dute larunbatean, hilak 15. Sarrerak internetez eskuratu daitezke, sarrerak@bonberenea.com helbidera idatziz, edo Tolosako ondorengo tabernetan: Eguzki, Orbela, Denak eta Mescal. 15 euro balio du eta ondorengo musika taldeak izango dira Bonbereneako futbol zelaian: Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, Gas Drummers eta Gose. Etxe barruan, Olarius eta Brothers rock DJ's.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2.

Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.